HIZKUNTZA HARRERARAKO GIDA

Getxon euskara eta gaztelania ikasteko

KALTEA LEPOAN BIZARRA DAGOENAK

Getxo
bizi ezazu

elkargune
PROGRAMA DE ACOGIDA A PERSONAS INMIGRANTES
ETORKINENTZAKO HARRERA - PROGRAMA

COLABORA:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Familia Politikako eta Anizatsunerako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES
Dirección de Política Familiar y Diversidad

2019ko otsaila

ONGIETORRIA

Udalerrian bizi diren atzerritarrek izaten dituzten beharrizan oinarrizkoenetakoa **bertoko biztanleekin harremanak izatea eta komunikatzea da**. Funtsezkoa da sustraitze eta gizarte-integrazio prozesuetan.

Gida honetan azalduko dizkizugu eskuragarri dituzun baliabide publiko eta pribatuak **erkidego honetako hizkuntza ofizialak ikasi edo hobetzeko: EUSKARA ETA GAZTELANIA (espainiera).**

BAZENEKIEN...

Autonomia Estatutua dela Euskadik duen oinarrizko erakunde-araua? Horren 6. artikuluak zera adierazten du: **EUSKARA**, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, **hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, GAZTELANIA** bezala, eta bertako biztanle guztiek dute **bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea**.

Gaur egun, **getxoztarren %33k euskaraz hitz egiten du eta beste %23 ulertzeko gai da**.

Gure seme-alabek bi hizkuntzak ikasteko aukera dute udalerriko ikastetxeetan.

Getxon **baliabide publiko eta pribatuak dituzu bi hizkuntzetan bizi den komunitate batean parte hartzeko**. Aukera itzela elkartzeko eta elkarri eragiteko.

ETA GOGORATU...

kaixo.getxo.eus web orrian askoz informazio gehiago aurkitu ahalko duzu udalerrian eskura dituzun baliabideen gainean (sozialak, sanitarioak, lan-arlokoak, hezkuntza-arlokoak, etxebizitza, aisialdia, kultura, elkarteak, zure eskubideen defentsa...).

Hori guztia 7 hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, errumaniera, arabiera eta txinera).

INFORMAZIO OROKORRA

Hizkuntzen Erreferentziarako Europar Marko Bateratua estandar europarra da, eta balio du jakiteko zein den ulermen, mintzamen eta idazmen maila hizkuntza jakin batean.



A1 Ulertu eta egiten ditu oinarrizko egiturak ahoz zein idatziz.

A2 Gai da ulertzeko eta komunikatzeko oinarrizko gauzak, bai norberaren esparruan, bai profesionalean.

B1 Gai da erakusteko, lantzeko eta komunikatzeko nozio estandarrak, bai norberaren esparruan, bai profesionalean.

B2 Gai da ulertzeko, lantzeko eta komunikatzeko nozio konplexuak, bai norberaren esparruan, bai profesionalean.

C1 Komunikatzeko maila ia bertako hiztun batena bezalakoa du, bai norberaren esparruan, bai profesionalean.

C2 Bertoko hiztun baten komunikatzeko antzeko maila eremu pertsonalean, zein profesionalean.

INFORMAZIO OROKORRA

EUSKARA ETA GAZTELANIA EUSKADIKO HEZKUNTZA SISTEMAN

Hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da 6 eta 16 urte bitarteko pertsona guztientzat eta bi etapatan banatzen da: derrigorrezko lehenengo eta bigarren hezkuntza. Gainera eskaintza zabala dago, zati handi bat doakoa ere, 0 eta 6 urte bitartekoentzat eta 16 urtetik gorakoentzat.

Ikasteko 3 eredu linguistiko daude, norberak nahi duena aukera dezan:

A Eredua: Gaztelania komunikazio-hizkuntza, Euskera eta Euskal Literatura ikasgaian izan ezik.

B Eredua: ikasgai batzuk gaztelaniaz (besteak beste irakurketa, idazketa eta matematika ikasgaiak) eta beste batzuk euskaraz (batez ere esperientziak, plastika eta dinamika).

D Eredua: Euskara komunikazio-hizkuntza, Lengua Castellana y Literatura ikasgaia izan ezik.

Getxoko **ikasleen matrikulazioa** honela banatzen da: % 16,94 A Ereduan, % 30,16 B Ereduan eta % 52,90 D Ereduan.

Hainbat familia getxoztar daude, euskara ez jakin arren, euren semealabei ikasteko eta bizitzeko aukera eman dietenak eredu euskaldunetan (B eta D).

Derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua dutenak, eta curriculumeko % 50 baino gehiago euskaraz egin dutenak salbuetsita daude euskarazko B1 mailari dagozkion tituluak aurkeztetik, administrazioko 1. HE.

Batxilergo edo goi-mailako teknikoko titulua dutenak, eta curriculumeko % 50 baino gehiago euskaraz egin dutenak salbuetsita daude B2 mailari dagozkion tituluak aurkeztetik, administrazioko 2. HE.

GETXOKO IKASTETXEEN GIDA:

http://eudala2.getxo.eus/ikastetxeak/#14/43.3472/-3.0035

GETXOKO LIBURUTEGI SAREA

Irakurketa, kontsultak, musika, pelikula eta dokumentalak, kultur ekintzak... eta askoz gehiago zure eskura.

Hurbil zaitez liburutegietara, lortu ezazu doako karneta eta hasi gure euskarazko eta gaztelaniazko funtsez gozatzen. Beste hizkuntzetan ere aurkitu ahalko dituzu hainbat material. Umeentzako liburutegiak ere baditugu.

www.getxo.eus/liburutegiak.

IRRATI ETA TELEBISTA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

EITB Euskadiko irrati eta telebista publikoa da 4 kanalekin, EITB 1-4 (horietatik hiruk euskaraz ematen dute).

Espainiako irrati eta telebista publikoko (RTVE) kateez gain, bestelako hainbat aukera daude kate pribatuetan gaztelania entzun eta ikasteko.

EUSKARA

UDALAREN EUSKARA ZERBITZUA

Getxoko Udalaren zerbitzua da, euskararen irakaskuntza eta erabilera sustatzen duena, hainbat programa eta laguntzaren bidez.

Getxoko Euskararen Erabilera Sustatzeko Ekintza-Planak datozen urteetan hizkuntza politikarako ezarri beharreko neurriak proposatzen ditu. Helburu orokorra euskara sustatzea izango da. Hizkuntza ikasteak eta bere kalitateak osatuko dute, erabilerarekin batera, helburuen atala.

BEKAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Badira Getxoko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak, eta HABEk (Eusko Jaurlaritza) ematen dituzten bekak.

http://www.getxo.eus/eu/euskara/subvenciones-ayudas/subvenciones-ayudas-euskera.

EUSKALTEGIAK

Ikastaro eta ordutegien eskaintza zabala maila guztietarako (hasierako mailatik).
Tituluak lortzeko prestakuntza Hizkuntzen Erreferentziarako Europar Marko Bateratuaren barruan.
Baita modulu txikiagoak ere (4, 5, eta 6 ordu astean).
Autoikaskuntzako ikastaroak eta mistoak (aurrez-aurrekoak+autoikaskuntza).
Mintzapraktika ikastaroak (elkarrizketa).
Merkataritza eta ostalaritzarako beren-beregiko ikastaroak.

HELDUENTZAT

UDAL EUSKALTEGIA
RKE Santa Eugenia 1, 4 solairua (Romo)
944 666 299
euskaltegi@getxo.eus

AEK
Iparbide kalea 6 (Algorta)
944 304 734
lauaxeta@aek.eus
www.aek.eus/blogak/uribekosta

JOSE ANTONIO AGUIRRE EUSKALTEGIA
Algortako etorb. 104 (Algortako metroa)
944 606 671
idazkaritza@jagirre.eus
www.jagirre.eus

BAI&BY
Kale Nagusia 2 (Areeta)
944 808 391
getxo@baiby.com
www.baiby.com

NESKA-MUTILENTZAT

INGUMA
Algortako etorb.104 (Algortako metroa)
944 606 671
uztarrialgorta@gmail.com
www.jagirre.eus

AREETAKO UZTARRI
Bidebarrieta 4 (Areetako metroa)
653 745 739 / 944 643 941
areetakouztarri@yahoo.es

EUSKARA ETA AISIALDIA

KUKUPRAKA LUDOTEKA (neska-mutilak)
Eskolak Plaza (Areetako Metroa)
944 660 355

GAZTELEKU GAUEGUN (11 - 17 urte)
Urgull z./g. 3. solairua (Algortako metroa)
944 660 356
gauegungaztelekua@getxo.eus

GAZTELEKU GURE GUNE (11 - 17 urte)
RKE. Santa Eugenia plaza 1, behea (Areetako Metroa)
944 660 022
guregunegaztelekua@getxo.eus

UDALEKUAK Udako Hiriko koloniak

UDAL KOLONIAK:
https://www.getxo.eus/eu/juventud/cursos-talleres/colonias-urbanas

BAPIRUKE:
http://www.bizarralepoan.eus/

SENDI - AISIALDIA FAMILIA GIROAN

Getxon familia girora zuzendutako euskarazko ekintzak SENDI proiektuaren barruan garatzen dira.

http://www.getxo.eus/eu/euskara/ocio-formativo

Informazio gehiago:
Gazte Informazio Bulegoa
Tangora Etxea.
Algortako Etorbidea, 98
(Algortako metroa, Getxo)
944 660 353
gaztebulegoa@getxo.eus

EGIZU

Getxon euskararen erabilera sustatzen duen elkartea da, bereziki belaunaldi berrien artean; horretarako, eremu berriak sortzen ditu eta gizarte harremanak indartzen ditu euskaraz normalean hitz egiten dutenen artean, eta ikasten ari direnen artean ere bai. Izan ere, EGIZUren helburua, berez, ez da euskararen jakintza handitzea, baizik eta **bere gizarte erabilera bultzatzea eta erraztea**, horrela jende gehiagok **erabiliko du eguneroko harremanetan**.

http://www.egizu.eus/

BERBALAGUNA ETA GURASOLAGUNA

Berbalaguna normalean euskaraz **hitz egiten duten eta hitz egin nahi duten** pertsonak biltzen dituen programa da.

Gurasolaguna Berbalagunaren aldaera da, eta ikasteko adina duten seme-alaben gurasoak biltzen ditu.

https://www.getxo.eus/eu/euskara/aprender-euskera/berbalaguna

AISA IRUDIZKO HIZTEGIA

Euskara, Espainiera, Errumaniera, Ingelesa, Frantsesa, Arabiera, Tamazightera, Txinera.
http://mailserver.lanabes.com/AISA2/

EUSKARA ETA GAZTELANIA?

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA

16 urtetik gorako pertsonek hizkuntzak ikasteko leku publikoa.

Hizkuntzen Erreferentziarako Europar Marko Bateratuaren araberako tituluak (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2). Kontsultatu matrikula tasak.

GETXO HEO

- Euskara (Frantsesa, Ingelesa eta Alemanaz gain).
- Eskolak Plaza z.g.- 48930 Getxo.
- Areetako metroa.

944 805 238
01486 5aa@hezkuntza.net
www.eoigetxoheo.hezkuntza.net

BILBO HEO

- Euskara eta Gaztelania (Atzerriko Hizkuntza), Alemana, Frantsesa, Errusiera, Italiera eta Portugesa.
- San Pedro Plaza 5, Deustu. Bilbo.
- Deustuko metroa.

944 754 972
01482admin@hezkuntza.net
www.eoibilbaoheo.hezkuntza.net

HEOI
Escuelas Oficiales de Idiomas del País Vasco

GAZTELANIA

HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA

Hezkuntzako baliabide **publiko eta doakoa**, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpe dagoena, eta **18 urtetik gorakoei zuzendua**.

Formakuntza programa anitza eskaintzen du (alfabetatzea, bigarren hezkuntzako graduatua, formakuntzako zikloetarako eta unibertsitaterako prestakuntza, euskara, informatika, ingelesa, frantsesa…), baita kultura ekintza eta programak. Herritartasuna lortzeko probak prestatzeko eskolak ere eskaintzen ditu.

ATZERRITARRENTZAKO GAZTELANIA IKASTAROAK (1. ETA 2. MAILAK)

Gaztelaniazko oinarrizko ezagutzez jabetzea, hizkuntza ikasteko, eta, ondorioz, komunitatean sartzen laguntzeko. Matrikulatzeko datak: ekaina, iraila eta otsaila. Leioako Helduen Hezkuntzako Ikastetxea, HHI, eskualdean dituen delegazioen erreferentea da. Delegazio hauei **EGOITZAK** deritze (Sopela, Getxo, Lamiako, Erandio, Zamudio, Mungia eta Derio).

Leioako HHI
Langileria 106 (Lamiakoko metroa)
944 646 335/ 944 806 110
cepaleioahhi@cepaleioahhi.eus
https://cepaleioahhi.weebly.com

Getxoko EGOITZA
Ordoñako mendate 18 (Bidezabaleko metroa)
944 300 514
epagetxo@cepalehioahhi.eus
https://cepaleioahhi.weebly.com/getxo.html

CEPA Leioa HHI

GAZTELANIA

GURUTZE GORRIA

Uribe-aldeko Gurutze Gorriko Eskualdeko Batzarrak hitzarmena du Getxo Udalarekin etorkinentzako harrera ekintzak garatzeko.

Atzerritar gazte eta helduentzako gaztelania eskolak eman ohi ditu.

TALDE MUGATUAK, 8 - 10 pertsonako taldeak (urri eta ekain bitartean).

HELDUENTZAT

EGUNAK: Ostegunak.

ORDUTEGIA: 17:00 - 18:30 h.

ADINGABEENTZAT

EGUNAK: Astearte eta asteazkenak.

ORDUTEGIA: 16:00 - 17:30 h.

Izena emateko:
socialesuribe@cruzroja.es
944 609 295

Cruz Roja
Gurutze Gorria

GOBELAURRE Boluntariotza Zentroa. Chavarri Zuazo Plaza
(Areetako edo Gobelako Metroa).



HIZKUNTZAK IKASTEKO APPa

IKASI MOVING LANGUAGES

Getxoko Moviendote elkarteak parte hartu du Europako Moving Languages ekimenean mugikorretarako aplikazio bat garatzen etorkinei laguntzeko harrera herriko hizkuntza ikas dezaten.

App erraz, moldakor eta intuitibo honen bidez mundu osoko jendea animatu nahi da beste hizkuntza batzuk ikastera, eta kulturen arteko elkar ulertzea sustatu.

Getxo bizi ezazu

elkargune
PROGRAMA DE ACOGIDA A PERSONAS INMIGRANTES
ETORKINENTZAKO HARRERA - PROGRAMA